



**2014KO ABENDUAREN 17KO**  
**EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko abenduaren hamazazpian, iluntzeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Haizea Mendia Iztueta eta Ane Irastortza Izagirre zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, eguneko gai zerrendan barneratutako gaien eztabaida egiteari ekiten zaio.

**I.- 2015EKO AURREKONTUA.-**

Jarraian 2015 urterako aurrekontua aurkezten da osoko bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordeak informatuak izan dira.

Goenaga zinegotziak, Ogasun Batzordearen presidente gisa, onarpenera aurkeztutako aurrekontuaren azalpena egiten du.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du batzordeetan planteatu izan dutela legegintzaldian zehar eskatzen aritu direla ekonomi garapenaren azterketarako 120.000 €ko partida bat eta helburu hori ez dela posible izan legegintzaldi honetan; eta esaten du baita ere, aurrekontu honen onarpena hilabete atzeratu dela Lazkao Lantzenen aurrekontua egitea falta zelako eta orain hilabete beranduago gaur bertan aritu gerala Lazkao Lantzenen aurrekontua eztabaidatzen eta Lazkao Lantzenen arazo sakonak daudela ikusi ahal izan dela, eta dena oso prezipitatu izan dela eta administrazio kontseiluan aurka bozkatu dutela eta hemen ere eta horren ondorioz aurrekontuaren aurka bozkatuko dutela.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du hainbat partiden inguruan adierazi dezaketela beraien ezadostasuna eta horri gehitu beharko litzaiokela azken hiru urtetan esan dutena, hau da aurrekontua beti inprobisazioan egin dela. Sasietairen egoera eta honek udal aurrekontuaren inguruan izango duen eraginaren inguruko zalantza eta kezkek azaltzen ditu baita ere.



Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontu hauen aurka bozkatuko dutela. Ez dela ezer berria, partida asko direla beraiek ados ez daudenak eta beraiek ere EAJk bezala Lazkao Lantzenen aurrekontuaren aurka bozkatu dutela hori hona trasladatzen dela. Honezaz gain Sasietako egoera ere hor dagoela eta honek udalean izango duen eragina zein izango den ez dakigula.

Alkateak Sasietaren inguruan egin diren galdera eta zalantzei erantzunez azalpenak ematen ditu.

Guzti honen ondoren, eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko sei botu (Bildu) eta aurkako bost botuz (EAJ, PSE-EE), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehen.- 2015 urterako udal aurrekontua hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

## **2015EKO UDAL BERAREN AURREKONTUA**

### SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.376.100,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	35.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.305.100,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.317.878,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	83.125,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	9.000,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	168.942,60 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	531.000,00 €
		<b>SARRERAK GUZTIRA .....</b>	<b>6.826.145,60 €</b>

### GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.322.529,05 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.385.072,55 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	50.000,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	643.740,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	675.300,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	338.504,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	410.000,00 €
		<b>GASTUAK GUZTIRA .....</b>	<b>6.826.145,60 €</b>



### 2015EKO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

#### SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	659.997,00 €
		SARRERAK GUZTIRA .....	<u>659.997,00 €</u>

#### GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	5.822,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	52.452,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	71.723,00 €
VII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	262.142,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	267.858,00 €
		GASTUAK GUZTIRA .....	<u>659.997,00 €</u>

### 2015EKO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

#### SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.376.100,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	35.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.305.100,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.317.878,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	83.125,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	668.997,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	168.942,60 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	531.000,00 €
		SARRERAK GUZTIRA .....	<u>7.486.142,60 €</u>

#### GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.322.529,05 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.390.894,55 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	102.452,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	643.740,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	747.023,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	338.504,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	263.142,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	677.858,00 €
		GASTUAK GUZTIRA .....	<u>7.486.142,60 €</u>



Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

## II.- 2015EKO PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako 2015eko Udal Langileen Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2015eko Lazkaoko Udalaren plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda, bere espedientean daudenak, onartu egiten ditu.

## III.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

